

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 34/2021 Foru dekretua, uztailaren 20koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileei eta 2021erako deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaie abere arrazak hobetzeko, animalien osasuneko, animalien ekoizpeneko, ustiatzei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko eta Done Jakue eguneko azokara joateko laguntzak arautzen dituzten oinarriak.

Arau hori argitaratu zenetik urte batzuk igaro direnean, oinarri arautzaileak aldatzeko beharra ikusi da, eta laguntza lerroetako bi kendu dira: batetik, elikagaien segurtasunaren eta kudeaketa ekonomikoaren arloan ustiatzei orientazio zerbitzua emateari buruzkoa, eta, bestetik, Done Jakue eguneko azokara joateari buruzkoa, Arabako Foru Aldundiaren ahalegin ekonomikoak beste hiru neurritan tinkotzeko, modu zuzenagoan eragiten baitute Arabako animalien ekoizpena eta osasuna hobetzean, eta, ondorioz, abeltzaintzako ustiatzeien errentagarritasunean eta lehiakortasunean. Gainera, "Abere arrazen hobekuntza" izeneko programaren izena aldatu nahi da, "Abere arrazen hazkuntza" izenarekin, hobeto identifikatzen baita programa horren xedearekin.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da laguntza horien kudeaketa sinplifikatzea eta Arabako abeltzaintza ustiatzeietan diruz lagun daitezkeen programetako bat garatzen duten erakundeak irekitzea, eta, horrez gain, egungo araudiak ezartzen dituen betebeharrak jasotzea laguntza publikoak eskuratzen dituzten nekazaritza sektorearekin lotutako erakunde eta elkarteetako zuzendaritza organoetan emakumeak egoteari dagokionez, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legean ezarritakoa betez; eta administrazio elektronikoari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera; eta bereziki erregistro elektronikoetan dokumentazioa aurkezteari dagokionez, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Indarrean diraute Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Foru Dekretuaren bidez lortu nahi diren helburuek, batez ere abeltzaintza sektoreari laguntzea, aurre egin beharreko zailtasunetan; izan ere, sektore horren errentagarritasuna ustiapenetik kanpoko faktoreek eragiten dute, hala nola produktuen salmenta prezioen ezegonkortasunak, lehengaien eta ekoizpen gaien kostu handiek eta horiek merkatura lekualdatzeko zailtasunak. Kalitate parametroak, ordea, gero eta handiagoak direnez, nahitaezkoa da laguntza horiei eustea.

Bestetik, laguntza hauen oinarri arautzaileak interpretatu eta behar bezala aplikatzeko orduan, eraginkorragoa da onestea proposatutako aldaketa guztiak testu eguneratu batean jasoko dituen dekretu berri bat, gaur egun indarrean dagoena aldatu ordez; izan ere, zailtasunengatik akatsak egin daitezkeenez, hura indargabetzea proposatzen baita.

Bete dira xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak.

Aginduzko txostenak aztertu dira eta ondorioz.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea abere arrazak hazteko, animalien osasuneko eta animalien ekoizpeneko programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak, foru dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena. Onestea, 2021. urterako, dirulaguntza horietarako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

Deialdiko laguntza lerroak:

2.1 Abere arrazak hazteko programen kudeaketa.

2.2 Animalien osasuneko programen kudeaketa.

2.3 Animalien ekoizpeneko programen kudeaketa.

Eskaerak aurkezteko epea: hilabete, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuko "Abeltzaintza laguntzen plana. Deialdi berria" izeneko 40.1.02.43.00.481.00.06 partidaren kargura, guztira 600.000,00 euro, urteroko hauetan honela banatuta:

2021. urterokoa: 450.000,00 euro (guztirako zenbatekoaren ehuneko 75). (zorpekin erreferentzia: 21.1.21.105.2500/000).

2022. urterokoa: 150.000,00 euro, gainerako ehuneko 25ari dagozkionak. (zorpekin erreferentzia: 21.3.22.105.77/000).

Hona hemen laguntza lerro bakoitzarentzat gorde beharreko zenbatekoak:

2.1 Abere arrazak hazteko programen kudeaketa: 400.000,00 euro (300.000,000 euro 2021. urterokoaren kontura eta 100.000,00 euro 2022koaren kontura).

2.2 Animalien osasuneko programen kudeaketa: 121.000,00 euro (90.750,00 euro 2021. urterokoaren kontura eta 30.250,00 euro 2022koaren kontura).

2.3 Animalien ekoizpeneko programen kudeaketa: 79.000,00 euro (59.250,00 euro 2021. urterokoaren kontura eta 19.750,00 euro 2022koaren kontura).

Kreditu horiek munta gehigarriekin handitu ahal izango dira, hasieran gordetako zenbateko berdinez gehienez ere, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laguntza lerro batean krediturik sobera badago, izapide gehiagorik gabe zuzendu ahalko da behar duten lerroetara, hasierako kredituaren proportzio berean, batean baino gehiagoan behar bada.

Laguntzak ordaintzea: honela egingo da ordainketa deialdi honetan: ehuneko 75 laguntza ematen denean, eta gainerako ehuneko 25a, aurrerakin hori oinarri arautzaileen 10.1 artikuluan ezarritako moduan justifikatu ondoren, 2022ko apirilaren 1a baino lehen eta betiere hurrengo ordainketaren aurretik.

Laguntzaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa onuraduneko lerro bakoitzean eta espedienteak sailkatzeko irizpideak: deialdi honetan, ez dira finkatzen laguntzaren gehieneko zenbatekoak ez espedienteak sailkatzeko irizpideak oinarri arautzaileetan ezarrita daudenez aparte.

Lehenengo xedapen iragankorra. Deialdi honetan, 2021ean hasitako programak aurkez daitezke, eta 2021eko urtarrilaren 1etik sortutako gastuak onartuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Programen puntuazioa ezartze aldera, ez dira programa sortu berrizat joko Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Foru Dekretuaren babesean diruz lagundu direnak, baldin eta haien xedea aldatu ez bada, nahiz eta programa horien erakunde onuradunak eta deialdi honen eskatzaileak bat etorri ez.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetuta geratzen da Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Foru Dekretua.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA**I. TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Xedea**

Foru dekretu honen xedea da finkatzea Arabako abeltzaintza sektorerako laguntzen oinarri arautzaileak, abere arrazak hazteko, animalien osasuneko eta animalien ekoizpeneko programa kolektiboak kudeatzea sustatzeko.

Programa kolektibotzat hartzen da Arabako Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan (REGA) inskribatutako bi ustiategi edo gehiago biltzen, integratzen edo zerbitzuak ematen dituen, salbu eta, Araban erregistratutako ustiategi kopuruagatik eta aurkeztutako programaren xede den sektore, azpisektore, espezie, arraza eta/edo produkzio orientaziokoak izateagatik, ez bada egingarria edo bideragarria programa ustiategi batek baino gehiagok osatua izatea.

2. artikulua. Laguntza lerroak edo diruz lagundu daitezkeen neurriak

Foru dekretu honetan araututako laguntzen lerroak hauek dira:

2.1 Abere arrazak hazteko programen kudeaketa.

2.2 Animalien osasuneko programen kudeaketa.

2.3 Animalien ekoizpeneko programen kudeaketa.

Foru dekretu honen bidez diruz lagundutako ekintzak, programak edo jarduerak Arabako Lurralde Historikoan kokatutako animaliekin eta instalazioekin lotuta egongo dira, eta ez abeltzaintzako ustiategiek beste lurralde historiko batzuetan edo beste autonomia erkidego batzuetan izan ditzaketenekin, titulartasun bereko beste ustiategi batzuetara egindako aldi baterako lekualdaketak izan ezik, betiere horrek arriskurik ez badakar diruz lagundutako programa edo ekintza garatzeko edo helburuak betetzeko.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1 Foru dekretu honetan jasotako laguntzen onuradunak izango dira lurralde erakundeak —administrazio batzarrak eta udalak barne—, bazka erkidegoak eta partzuergoak eta/edo Arabako Lurralde Historikoan edo kanpoan kokatutako erakunde publiko edo pribatuak, baldin eta Arabako Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan (REGA) izena emanda dauden abere ustiategiak biltzen, osatzen edo zerbitzuak ematen badituzte dekretu honen 2. artikuluan jasotako laguntza lerroen esparruan.

3.2 Onuradun izateko, aurreko apartatuan aipaturiko erakundeek, hurrengo artikuluan ezartzen diren irizpide orokorrez gain, kasuan kasuko laguntza lerro bakoitzean zehaztutakoak bete beharko dituzte, laguntza emateko unean.

4. artikulua. Betekizun orokorrak

Laguntzen onuradun izateko, aurreko artikuluan aipaturiko erakundeek betekizun orokor hauek bete beharko dituzte:

4.1. Legez eratuta eta dagozkien erregistroetan izena emanda egotea.

4.2. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharren ordainketan egunean izatea.

4.3. Itzulketa edo zehapen prozeduraren baten pean ez egotea.

4.4. Hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketa egunean edukitzea, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen duen moduan.

4.5. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galerarekin zigorturik ez egotea ez zigor bidean ez administrazio bidean, ez eta horretarako gaitasungabetzen duen legezko debekuren bat ez izatea ere, horren barruan sarturik sexu diskriminazioagatik gertatutako debekuak, betiere otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarenak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

4.6. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legedian eta, bereziki, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legean ezarritakoa betetzea, zuzendaritza organoetan emakumeen presentziari dagokionez.

4.7. Diruz lagundutako programak gauzatzeko behar diren ekintzak burutzeko azpiegiturak eta baliabide materialak izatea.

4.8. Programatutako eginkizunak betetzeko gai diren langileak edukitzea eta bermatzea ez daukatela interes gatazkarik eta esku hartu behar duten abeltzaintza ustiategiei dagokienez independenteak direla. Gainera, pertsona batek diruz lagundutako programen zuzendaritza teknikoko eginkizunak eraginkortasunez egin behar ditu. Programen zuzendaritza teknikoak gauzatu behar duten pertsonak edo pertsonak albaitaritza, nekazaritza ingeniari, nekazaritza ingeniari tekniko lanbidean jarduteko gaitzen duen titulu akademikoa edo lege ezarritako titulazio baliokidea izan behar du. 2.2. "Animalien osasuneko programen kudeaketa" laguntza lerroaren kasuan, programen zuzendaritza teknikoak nahitaez gutxienez albaitaritzako tituludun batek beteko du.

4.9. Datuen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen dituzten aplikazio informatikoak edukitzea. 2.1. "Aberre arrazak hazteko programen kudeaketa" laguntza lerroaren kasuan, datu baseek arraza bakoitzaren araudiak ezartzen duen informazioa jaso behar du gutxienez.

4.10. Euskararen erabilera sustatzeko xedearekin, erakunde onuradunek kontuan hartuko dute, ahal duten neurrian, Arabako Lurralde Historikoaren hizkuntza koofizialtasuna, abeltzaintzako ustiategiekiko idatzizko zein ahozko harremanetan.

5. artikulua. Gastu onargarriak eta onartezinak

Gastu onargarriak eta, hala badagokio, ez-onargarriak laguntza lerro bakoitza arautzen duen II. tituluaren zehazpen dira.

6. artikulua. Laguntzen era, ehunekoa eta zenbatekoa

6.1. Laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, laguntza lerro bakoitzean (II. tituluaren arautzen dira) adierazten den gastu onartuaren ehunekotan.

6.2. Arabatik kanpo kokatuta dauden eta laguntza eskatzen duten erakundeei dagokienez, programa Arabako abeltzaintza ustiategietan gauzatzeko sortutako gastuak soil-soilik ordaintzeko erabiliko da laguntza.

7. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea, modua eta lekua

7.1 Urtero, laguntzen deialdia onetsiko da, eta honako hauek jasoko ditu:

- Deialdiko laguntza lerroak.
- Laguntzen ebazpenerako gordetzen diren kredituak.
- Eskaerak aurkezteko epea.
- Laguntzak ordaintzeko modua eta, hala badagokio, ematen den unean aurreratuko den ordainketa ehunekoa.
- Hala dagokionean, laguntzaren gutxieneko eta/edo gehieneko zenbatekoa eta/edo erakunde onuradun bakoitzeko diruz lagun daitekeen gutxieneko eta/edo gehieneko aurrekontua laguntza lerro bakoitzean.
- Espedienteak sailkatzeko irizpide gehigarriak, hala behar izanez gero.

7.2. Laguntza eskaerak hauetako batean aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoa betetz, nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>), pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako) eta Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzaren dutenek.

7.3. Eskaera bat aurkeztuko da programa bakoitzeko, inprimaki normalizatuan eta agiri hauekin batera:

- Laguntza eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia eta ordezkartzaren egiaztapena.
- Estatutuen kopia, edo, hala badagokio, eratze eskriturarena, behar bezala erregistratuta.
- Xede berbera edo loturikoa duten eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako dirulaguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
 - Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten dion zehapen penalik edo administrazio zehapenik ez duelakoa eta horrelako ezein legezko debekuren pean ez dagoelakoa, sexu bazterkeriari dagozkionak barne.
 - Itzultzeko edo zehatzeko prozedura batean ez dagoela eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketa egunean duela dioen erantzukizunpeko adierazpena, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako baldintzetan.
 - Nekazaritzaren arloan diharduten elkarte edo erakunde profesional, enpresarial, sindikal edo bestelakoen kasuan, honako informazio hau jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena: erakundea osatzen duten kideen guztizko kopurua, gizonezkoek, emakumezkoek eta elkartekoek banatuta, eta zuzendaritza organoa osatzen duten pertsonen guztizko kopurua, sexuka banatuta.
 - Dirulaguntza eskatzen den programan sarturiko abeltzaintza ustiatzearen zerrenda eta bakoitzarenazienda errolda.
 - Programa gauzatuko duten langileen eta horretan sartutako abeltzaintza ustiatzearen arteko interes gatazkarik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena.
 - Dagokion erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztapena.
 - Programaren azalpen memoria. Gutxienez, alderdi hauek bildu beharko ditu:
 - Helburuen azalpena.
 - Programa gauzatzeko dituen lan prozedurak eta metodologia.
 - Diru sarreraren eta gastuen aurrekontua, non jasota egongo baita laguntzaren xede den programaren finantzaketa, II. tituluan laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako partida eta jarduera lagungarrien arabera xehatuta.
 - Jarduera adierazleak.
 - Gauzatzeko epeak.
 - Dituen datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko hartutako segurtasun neurrien eta aplikazio informatikoen xehetasuna.
 - Laguntza eskatzen duen programa gauzatzeko dituen azpiegituren eta baliabide materialen xehetasuna.

- Programa gauzatuko duten langileen xehetasuna eta, hala badagokio, haien gaikuntzaren eta tituluaren egiaztapena.

7.4. Laguntza eskaera aurkezten bada, eskatzaileak baimena ematen du zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzari dagokienez dagoen egoera egiaztatzeko informazioa biltzeko Arabako Foru Aldundiko Ogasun Saitetik, beste zerga administrazio batzuetatik eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorretik.

7.5. Eskaeretan akatsak edo zehaztasunik eza antzematen badira edo eskaerok osatu gabe badaude, errekerimendua egingo zaie eskatzaileei, 10 egun baliouduneko epean, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatuta, konpon ditzaten. Era berean, adieraziko da hori egin ezean eskaeran atzera egin dutela ondorioztatuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

8. artikulua. Izapidetzea

8.1. Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, espedienteak Abeltzaintza Zerbitzuak bideratuko ditu, eta hark aztertuko du aurkeztutako dokumentazioa eta hari buruzko txosten teknikoak egin.

8.2. Espedientea bideratzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu eta egiaztatzearen. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

8.3. Foru dekretu honetan xedatutako laguntzak emateko modua norgehiagoka bidez izapidetuko da, oinarri hauetan laguntza lerro bakoitzerako bildutako balioespen irizpideei jarraituz.

8.4. Eman beharreko laguntzen kopurua lerro bakoitzera xedatutako zenbatekoa baino handiagoa bada, hala badagokio egokiak diren gehikuntzak egin ostean, zenbateko hori oinarri hauen arabera laguntza jasotzeko eskubidea duten lerroaren onuradunen artean hainbanatuko da, muntak dagokien moduan gutxituz.

8.5. Behin espedienteak aztertuta, kide anitzeko balorazio organoak ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena prestatuko du, ezarritako lehentasunen arabera irizpideak aplikatuz eta aurrekontu baliagarria kontuan hartuz. Orobat, hala badagokio, espediente bakoitza ezesteko arrazoiak zehaztuko ditu eta baietsitako espedienteek betebeharrak betetzen dituztela azalduko du.

8.6. Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoa ondoren adierazten diren pertsonak edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonak osatuko dute:

- Abeltzaintza Zerbitzuaren burua.
- Abeltzaintza Zerbitzuko bi teknikari.
- Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

9. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

9.1. Foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean den araudiaren arabera. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio bideari, eta horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, arautzen duen araudiarekin bat etorritik. Gainera, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da.

9.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

9.3 Laguntza emate ebazpenek alderdi hauek zehaztuko dituzte espediente bakoitzari dagokionez: emandako dirulaguntzaren munta, ematen den programa edo jarduera eta diruz lagundutako gastua. Ebazpena negatiboa bada, arrazoia zehaztuko da.

9.4. Laguntza ebazpenaren jakinarazpena banaka eta modu berean egingo da. Bertan, alderdi hauek adieraziko dira: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ematen den programa edo jarduera, diruz lagundutako gastua, gauzatzeko epea eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoia.

10. artikulua. Justifikazioa eta dirulaguntzen ordainketa

10.1 Dirulaguntzak urteko deialdi bakoitzean zehazten den moduan ordainduko dira. Guztizko zenbatekoaren euneko 75 ere aurreratu ahalko da laguntza ematen den unean, eta gainerakoa, aurreko aurrerakina justifikatu ondoren, ematearen hurrengo urteko apirilaren 1a baino lehen, honela justifikatu ere:

– Egikaritze memoria bat aurkeztea, garatutako ekintzei buruzko informazioa bilduko duena, diruz lagundutako programan ezarritako adierazleak jasoko dituena gutxienez, eta abeltzaintzako ustiategiek programaren xede diren jarduerak betetzen dituzten baloratzeko bezain zehatza izango dena.

– Gastuen justifikazioa, fakturak aurkeztuz.

– Hala badagokio, fakturak dagokion banku transferentziaren bidez ordaindu izana egiaztatzea.

– Langile gastuak justifikatzeko, kudeatzailetzaren ziurtagiria, honako hauek ziurtatzen dituenak: programa egiteko atxikitako langileak, horien atxikitze aldia, dedikazioa, langile kostuak. Gastu horiek egozteko erabilitako irizpidea ere zehaztu beharko da.

– Programa bakoitzaren gastuen eta diru sarreraren xehetasuna, Abeltzaintza Zerbitzuak emandako ereduaren arabera, edo gutxienez bertan eskatutako informazioa jasotzen duena.

– Xede bererako jasotako beste laguntza batzuen diru sarreraren xehetasuna eta justifikazioa edo, bestela, bestelako dirulaguntzarik jaso ez duelako erantzukizunpeko adierazpena.

– Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopiak jatorrizko dokumentuekin bat datozela adierazten duena.

10.2. Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeina interesdunaren esku egongo baita, eta Abeltzaintza Zerbitzuaren eskura egon beharko dute hala eskatzen zaionean.

Bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

10.3. Edonola ere, erakunde eskatzaileari beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango zaio, programa bete den baloratzeko.

11. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Laguntzen onuradunek, ondoren oro har adierazten diren betebeharez gain, neurri bakoitzean zehazten direnak ere bete beharko dituzte:

11.1. Emandako dirulaguntza onartzea eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Horretarako, dirulaguntzaren jakinarazpena jaso denetik hamar egun baliodun igaro ostean onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartutzat joko da.

11.2. Diruz lagundutako programak edo jarduketak gauzatea emate ebazpenean ezarritako epearen barruan.

11.3. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea beren eginkizunak betetzen ari direlarik eskatzen duten informazioa foru dekretu honen babesean jasotako dirulaguntzei buruz.

11.4. Programan sartutako abeltzaintza ustiategiek hor ezarritako konpromisoak betetzen dituztela zaintzea.

12. artikulua. Diruz lagundutako programei heltzen dieten abeltzaintza ustiategien betebeharrak

Diruz lagundutako programei heltzen dieten abeltzaintza ustiategiek betebeharrak hauek izango dituzte:

12.1. Diruz lagundutako programetan ezarritako betekizunak eta ekintzak betetzea. Gainera, 2.1 laguntza lerroan ("Abere arrazak hazteko programen kudeaketa"), arraza bakoitzaren liburu genealogikoak edo hazteko programak arautzen dituen araudian jasotakoak ere bete beharko dira, erakunde kudeatzaileek onetsitako lan prozedurak barne.

12.2. Programaren arduradun eta laguntzaren onuradun den erakundeari behar duen informazio guztia ematea, ezarritako formatuan eta epeetan, horrekin eta, 2.1 neurrian ("Abere arrazak hazteko programen kudeaketa"), liburu genealogikoa edo hazte programa arteztearekin zerikusia duten ekintzak gauzatzeko.

13. artikulua. Laguntzen kontrola eta ez betetzeak

13.1. Abeltzaintza Zerbitzuak kontrolak egin ahalko ditu diruz lagundutako programan sarturiko abeltzaintza ustiategietan, erakunde onuradunek konpromisoak betetzen dituzten egiaztatzeko.

13.2. Erakunde onuradunek diruz lagundutako programetan ezarritako helburuak betetzen ez badituzte, bete gabeko helburu horiekin proportzionala den zatia gutxituko da edo, hala badagokio, hori gehi berandutze interesak itzuliko zaizkio Foru Ogasunari, Abeltzaintza Zerbitzuak egindako txostenaren arabera.

13.3. Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako.

13.4. Nekazaritza Sailaren foru aginduaren bidez erabakiko da dirulaguntzaren itzulketa osoa edo partziala, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik eta onuradunari entzun ondoren.

13.5. Laguntzak osorik edo partzialki itzultzeko prozeduraz gain, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahal izango da.

14. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan jasoriko dirulaguntzen erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduan xedatutakoa eta Europan, estatuan eta autonomian aplikagarri den araudian ezarritako gainerako xedapenak bete beharko dituzte.

15. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin

15.1. Foru dekretu honetan xedatutako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publikoek edo pribatuek emandako beste edozein laguntza edo dirulaguntza motarekin.

15.2. Nolanahi ere, laguntzen zenbatekoak, bakarrik edo beste batzuekin batera, ezingo du gainditu garatu beharreko jarduera edo programaren kostuaren muga. Beste laguntza batzuk eskuratzeagatik muga hori gaindituz gero, laguntza gutxitu egingo da.

16. artikulua. Laguntzak finantzatzea

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, deialdi bakoitzean jartzen den mugarekin.

II. TITULUA LAGUNTZA LERROAK

17. artikulua. Abere arrazak hazteko programen kudeaketa

Laguntza lerro honen helburua da sustatzea Arrazen Katalogo Ofizialean jasotako abere arrazen liburu genealogikoen eta hazkuntza programen kudeaketa, hain zuzen, arraza hutseko animalia ugaltzaileei, txerri ugaltzaile hibridoek eta haien ugalketa materialari aplikatu beharreko arau zooteknikoak ezartzen dituen otsailaren 8ko 45/2019 Errege Dekretuaren I. eranskinan jasotako katalogoan. Errege dekretu horrek, gainera, abere arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko plan nazionala gaurkotzen du, eta honako errege dekretu hauek aldatzen ditu: maiatzaren 25eko 558/2001; urriaren 30eko 1316/1992; azaroaren 27ko 1438/1992; eta azaroaren 14ko 1625/2011; eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko, eta abere arrazak sustatzeko erakundeak arautzeko ekainaren 2ko 81/2015 Dekretuaren I. eranskina, edo haien ordezko arauak.

17.1. Onuradunen berariazko betekizunak.

Erakunde onuradunek, foru dekretu honen 4. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

- Eusko Jaurlearitzako Abere Arrazak Sustatzeko Elkartearen Erregistroan sartuta egotea.
- Arabako Lurralde Historikoan dagokion arrazaren Genealogia Liburua eramateko legezko aitortpena izatea eta/edo kasu bakoitzean dagokion euskal federazioko kide izatea.
- Estatutuen arabera, kasuan kasuko abere arrazako abereak hazten dituzten Arabako ustiategiak elkartzeko xedea izatea.

17.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak:

17.2.1. Jarduketa hauen ondoriozko gastuak lagundu ahalko dira diruz:

- Liburu genealogikoak sortu, kudeatu eta mantentzea.
- Animalien kalitate genetikoa edo etekina zehaztea xede duten probak egitea.
- Diruz lagundu ahalko dira liburu genealogikoak edo hazkuntza programak arteztearekin zerikusia duten ekintzak Abeltzaintza Zerbitzuak interesgarritzat jotzen dituen hazkuntza programetan ezarritako gutxieneko bizi-tasuna gaindituz gauzatzearen ondoriozko gastuak.

17.2.2. Ez dute laguntzarik jasoko hauek:

- Araudi orokorra betetzearen ondorioz abeltzaintza ustiategietarako derrigorrezkoak diren jarduketan ondoriozko gastuak.

17.3. Espedienteak sailkatzeko irizpideak:

Laguntza espedienteak sailkatzeko irizpideak puntuen arabera barematuko dira, taula honen arabera:

ELKARTE MOTA:

- Euskadiko galzoriko arraza autoktono baten liburu genealogikoa kudeatzen duen elkarte: 25 puntu.
- Euskadiko sustatzeko arraza autoktono baten liburu genealogikoa kudeatzen duen elkarte: 20 puntu.
- Arrazen Katalogo Ofizialeko beste arraza batzuen liburu genealogikoa kudeatzen duen elkarte: 15 puntu.

PROGRAMAREN INTERES SOZIALA ETA/EDO EKONOMIKOA:

- Baxua: 5 puntu.
- Ertaina: 10 puntu.
- Altua: 20 puntu.
- Oso altua: 25 puntu.

PROGRAMAREN BALORAZIOTEKNIKOA:

- Baxua: 5 puntu.
- Ertaina: 10 puntu.
- Altua: 20 puntu.
- Oso altua: 25 puntu.

PROGRAMA AURREKO EKITALDIETAN NOLA GAUZATU DEN BALORATZEA:

- Baxua (ehuneko 40 baino gutxiago gauzatzea): 0 puntu.
- Ertaina (ehuneko 40 eta 60 bitartean gauzatzea): 5 puntu.
- Altua (ehuneko 60 eta 80 bitartean gauzatzea): 15 puntu.
- Oso altua (ehuneko 80 eta 100 bitartean gauzatzea): 20 puntu.

USTIATEGIEN EKARPEN EKONOMIKOAREN BALORAZIOA:

- Oso baxua (gastuaren ehuneko 20 baino gutxiago): 0 puntu.
- Baxua (gastuaren ehuneko 20 eta 25 artean): 5 puntu.
- Ertaina (gastuaren ehuneko 25 eta 30 artean): 10 puntu.
- Altua (gastuaren ehuneko 30 eta 35 artean): 15 puntu.
- Oso altua (gastuaren ehuneko 40 baino gehiago): 20 puntu.

PROGRAMA SORTU BERRIA:

(laguntzen deialdia egin aurreko 12 hilabeteetan sortua): 20 puntu.

Irizpide bakoitzean ezarritako puntuak elkar baztertzen dute, eta gehienez 115 puntu emango dira.

17.4. Laguntzen munta.

17.4.1. Abere arrazak hazteko programetarako laguntzaren gehieneko ehunekoa justifikatutako aurrekontu lagungarriaren euneko 80 izango da.

17.4.2. Programa bakoitzari dagokion laguntzaren ehuneko zehatza kalkulatzeko, laguntzaren gehieneko ehunekoari koefiziente biderkatzaile bat aplikatuko zaio, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera emana 17.3 apartatuko irizpideak aplikatuta, taula honen arabera:

- 90 puntu edo gehiago dituzten espedienteak, 1. koefizientea.
- 70 eta 89 puntu bitarteko espedienteak, 0,9 koefizientea.
- 50 eta 69 puntu bitarteko espedienteak, 0,8 koefizientea.
- 30 eta 49 puntu bitarteko espedienteak, 0,7 koefizientea.
- 20 eta 29 puntu bitarteko espedienteak, 0,6 koefizientea.

Eragiketa horren emaitza izango da programa bakoitzean diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatu beharreko ehunekoa, laguntzaren zenbatekoa zehazteko.

Diruz lagun daitekeen gastuari emandako dirulaguntzaren azken zenbatekoak ez du gaindituko onartutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, ez eta egokitu zaion laguntzaren ehunekoa ere.

18. artikulua. Animalia osasuneko programen kudeaketa

Laguntza lerro honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiategietan animalia osasuneko programen eta zerbitzuen kudeaketa sustatzea. Foru dekretu honen babesean onetsi eta diruz lagundutako osasun programak nahitaezkoak direnen bestelakoak izango dira, eta Nekazaritza Sailaren onespren ofiziala izango dute.

18.1. Erakunde onuradunen berariazko betekizunak.

Ez da betekizun berezirik finkatu laguntza lerro honetarako.

18.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak.

18.2.1 Kontzeptu hauek lagundu ahalko dira diruz:

– Administrazio gastuak eta osasun programa egitearen eta koordinatzearen arduradun diren langile teknikoenak.

– Programa gauzatzeko pertsonal gastuak eta gastu materialak.

– Txertoetan eta programa gauzatzeko behar diren beste sendagai batzuetan egindako gastuak.

– Laginak hartzearen ondoriozko gastuak. (salbu eta laginak hartzen badira beste jarduketa ofizial batzuen barruan).

– Nahitaezkoztat jotzen diren beste gastu batzuk.

18.2.2. Ez dute laguntzarik jasoko hauek:

– Araudi orokorra aplikatuz programan sartutako abeltzaintza ustiategietarako derrigorrezkoak diren jarduketan ondoriozko gastuak.

18.3. Espedienteak sailkatzeko irizpideak:

Laguntza espedienteak sailkatzeko irizpideak puntuen arabera barematuko dira, taula honen arabera:

PROGRAMA MOTA:

– Zoonosiari aurre egiteko programa: 15 puntu.

– Epizootiei aurre egiteko programa: 10 puntu.

– Ustiategien produktibitateari eragiten dioten gaixotasunei aurre egiteko programa: 5 puntu.

PROGRAMARI HELTZEN DIOTEN USTIATEGIEN KOPURUA:

Programari heldutako ustiategi bakoitzeko, puntu 1 emango da. Gehienez, 10 puntu.

PROGRAMAREN INTERES SOZIALA ETA/EDO EKONOMIKOA:

– Baxua: 5 puntu.

– Ertaina: 10 puntu.

– Altua: 20 puntu.

– Oso altua: 25 puntu.

PROGRAMAREN BALORAZIOTEKNIKOA:

– Baxua: 5 puntu.

– Ertaina: 10 puntu.

– Altua: 20 puntu.

– Oso altua: 25 puntu.

PROGRAMA AURREKO EKITALDIETAN NOLA GAUZATU DEN BALORATZEA:

– Baxua (ehuneko 40 baino gutxiago gauzatzea): 0 puntu.

– Ertaina (ehuneko 40 eta 60 bitartean gauzatzea): 5 puntu.

– Altua (ehuneko 60 eta 80 bitartean gauzatzea): 15 puntu.

– Oso altua (ehuneko 80 eta 100 bitartean gauzatzea): 20 puntu.

USTIATEGIEN EKARPEN EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

- Oso baxua (gastuaren ehuneko 20 baino gutxiago): 0 puntu.
- Baxua (gastuaren ehuneko 20 eta 25 artean): 5 puntu.
- Ertaina (gastuaren ehuneko 25 eta 30 artean): 10 puntu.
- Altua (gastuaren ehuneko 30 eta 35 artean): 15 puntu.
- Oso altua (gastuaren ehuneko 40 baino gehiago): 20 puntu.

PROGRAMA SORTU BERRIA:

(laguntzen deialdia egin aurreko 12 hilabeteetan sortua): 20 puntu.

Irizpide bakoitzean ezarritako puntuek elkar bazterten dute, eta gehienez 115 puntu emango dira.

18.4. Laguntzen munta.

18.4.1. Animalia osasuneko programetarako laguntzaren gehieneko ehunekoa justifikatutako aurrekontu lagungarriaren ehuneko 80 izango da.

18.4.2. Programa bakoitzari dagokion laguntzaren ehuneko zehatza kalkulatzeko, laguntzaren gehieneko ehunekoari koefiziente biderkatzaile bat aplikatuko zaio, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera emana 18.3 apartatuko irizpideak aplikatuta, taula honen arabera:

- 90 puntu edo gehiago dituzten espedienteak, 1. koefizientea.
- 70 eta 89 puntu bitarteko espedienteak, 0,9 koefizientea.
- 50 eta 69 puntu bitarteko espedienteak, 0,8 koefizientea.
- 30 eta 49 puntu bitarteko espedienteak, 0,7 koefizientea.
- 20 eta 29 puntu bitarteko espedienteak, 0,6 koefizientea.

Eragiketa horren emaitza izango da programa bakoitzean diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatu beharreko ehunekoa, laguntzaren zenbatekoa zehazteko.

Diruz lagun daitekeen gastuari emandako dirulaguntzaren azken zenbatekoak ez du gaudituko onartutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, ez eta egokitu zaion laguntzaren ehunekoa ere.

19. artikulua. Animalia ekoizpeneko programen kudeaketa

Laguntza lerro honen xedea da ekoizle elkarteetan dauden Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzietan animalia ekoizpena hobetzeko programen eta zerbitzuen kudeaketa sustatzea.

19.1. Onuradunen berariazko betekizunak.

Ez da betekizun berezirik finkatu laguntza lerro honetarako.

19.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak.**19.2.1. Kontzeptu hauek lagundu ahalko dira diruz:**

- Administrazio gastuak eta animalia ekoizpeneko programa egitearen eta koordinatzearen arduradun diren langile teknikoak.
- Programa gauzatzeko pertsonal gastuak eta gastu materialak.
- Laborategi analitiken gastuak.
- Abeltzaintza Zerbitzuak programa ondo garatzeko nahitaezkoztat jotzen dituen beste gastu batzuk.

19.2.2. Ez dute laguntzarik jasoko hauek:

– Araudi orokorra aplikatuz programan sartutako abeltzaintza ustiategietarako derrigorrezkoak diren jarduketan ondoriozko gastuak.

19.3. Espedienteak sailkatzeko irizpideak.

Laguntza espedienteak sailkatzeko irizpideak puntuen arabera barematuko dira, taula honen arabera:

PROGRAMA MOTA:

- Esnearen kalitate higieniko-sanitarioa hobetzeko programa: 15 puntu.
- Ugalketa kontrolatzeko programa: 10 puntu.
- Bestelako programak: 5 puntu.

Programa berritzailea: programa bat berritzailetzat jotzen denean, 10 puntu gehituko zaizkio aurreko puntuazioari, atal honetan gehienez 15 puntu lortu arte.

PROGRAMARI HELTZEN DIOTEN USTIATEGIEN KOPURUA:

Programari heldutako ustiategi bakoitzeko, puntu 1 emango da. Gehienez, 10 puntu.

PROGRAMAREN INTERES SOZIALA ETA/EDO EKONOMIKOA:

- Baxua: 5 puntu.
- Ertaina: 10 puntu.
- Altua: 20 puntu.
- Oso altua: 25 puntu.

PROGRAMAREN BALORAZIOTEKNIKOA:

- Baxua: 5 puntu.
- Ertaina: 10 puntu.
- Altua: 20 puntu.
- Oso altua: 25 puntu.

PROGRAMA AURREKO EKITALDIETAN NOLA GAUZATU DEN BALORATZEA:

- Baxua (ehuneko 40 baino gutxiago gauzatzea): 0 puntu.
- Ertaina (ehuneko 40 eta 60 bitartean gauzatzea): 5 puntu.
- Altua (ehuneko 60 eta 80 bitartean gauzatzea): 15 puntu.
- Oso altua (ehuneko 80 eta 100 bitartean gauzatzea): 20 puntu.

USTIATEGIEN EKARPEN EKONOMIKOAREN BALORAZIOA:

- Oso baxua (gastuaren ehuneko 20 baino gutxiago): 0 puntu.
- Baxua (gastuaren ehuneko 20 eta 25 artean): 5 puntu.
- Ertaina (gastuaren ehuneko 25 eta 30 artean): 10 puntu.
- Altua (gastuaren ehuneko 30 eta 35 artean): 15 puntu.
- Oso altua (gastuaren ehuneko 40 baino gehiago): 20 puntu.

PROGRAMA SORTU BERRIA:

(laguntzen deialdia egin aurreko 12 hilabeteetan sortua): 20 puntu.

Irizpide bakoitzean ezarritako puntuek elkar baztertzen dute, eta gehienez 115 puntu emango dira.

19.4 Laguntzen munta.

19.4.1. Animalien ekoizpeneko programetarako laguntzaren gehieneko ehunekoak justifikatutako aurrekontu lagungarriaren euneko 80 izango da.

19.4.2. Programa bakoitzari dagokion laguntzaren ehuneko zehatza kalkulatzeko, laguntzaren gehieneko ehunekoari koefiziente biderkatzaile bat aplikatuko zaio, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera emana 19.3 apartatuko irizpideak aplikatuta, taula honen arabera:

- 90 puntu edo gehiago dituzten espedienteak, 1. koefizientea.
- 70 eta 89 puntu bitarteko espedienteak, 0,9 koefizientea.
- 50 eta 69 puntu bitarteko espedienteak, 0,8 koefizientea.
- 30 eta 49 puntu bitarteko espedienteak, 0,7 koefizientea.
- 20 eta 29 puntu bitarteko espedienteak, 0,6 koefizientea.

Eragiketa horren emaitza izango da programa bakoitzean diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatu beharreko ehunekoak, laguntzaren zenbatekoa zehazteko.

Diruz lagun daitekeen gastuari emandako dirulaguntzaren azken zenbatekoak ez du gaindituko onartutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, ez eta egokitu zaion laguntzaren ehunekoak ere.